

Ebazpena: 156/2022

Espedientea: 38/2015

Vitoria-Gasteizen, 2022ko azaroaren 22an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordeak –Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofia Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatuak– honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) Zerga Administrazioeko Estatu Agentziarekiko (aurrerantzean, ZAEA) planteatutako gatazkari buruzkoa, 2010etik 2012ra arteko urteetan ASGSLren zergapekoaren sozietateen gaineko zergari buruzko ikuskapen orokorrak egiteko eskumenari dagokionez. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 38/2015 espedientezenbakiarekin.

AURREKARIAK

1.- ASGSL 2009ko apirilaren 27an eratu zen (egoitza Madrilgo kalean zuen), eta haren helburu soziala, besteak beste, gerentziako, informatikako, inbertsioko, bitartekaritzako eta komunikazioko enpresen aholkularitza egitea zen.

2.- 2009ko uztailaren 29an, ASGSLk bere egoitza soziala aldatu eta Bilboko C kalera eraman zuen, baina egoitza sozial horretan ez dago ASGSLren berririk.

3.- 2015eko otsailaren 5ean, BFAk gatazka bat aurkeztu zuen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean, ASGSLren Madrilgo egoitza zuzentzeko; horren ondorioak atzeraeraginez hasi ziren 2009ko apirilaren 27tik aurrera. 9/2015 espediente-zenbakiarekin izapidetu zen.

4.- 2015eko maiatzaren 9an, ZAEAk ASGSLri jakinarazi zion 2010etik 2012ra bitarteko sozietateen gaineko zergari buruzko egiaztapen- eta ikerketa-jarduketa orokorren hasiera.

5.- 2015eko ekainaren 30ean, BFAk inhibitzeko eskatu zion ZAEARI ASGSL zergapekoaren 2010etik 2012ra bitarteko urteetako sozietateen gaineko zerga egiaztatzeko eta ikertzeko eskumenari zegokionez, *harik eta zergadunaren zerga-egoitza zuzentzeari buruz Arbitraje Batzordean ebazteke dagoen gatazka bideratu arte, abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13. artikuluko 1. zenbakian aurreikusitakoaren ondorioetarako.*

5.- Inhibizio-errekerimendua egin zenetik hilabete igaro ondoren, ZAEAk ez zion berariaz erantzun; hortaz, BFAk gatazka planteatu zuen 2015eko uztailaren 30ean Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean.

6- Gatazka prozedura arruntaren bidez izapidetu da, eta, beraz, bete egin da ZAEAk alegazioak egin eta froga eta dokumentazio egokiak aurkeztu eta proposatzeko izapidea. ZAEAk izapide hori betetzeko epea luzatzeko eskatuta, azkenik, jarduketak artxibatze eskatu du, xedea gerora galdu delako.

7.- Azaroaren 22ko 153/2022 Ebazpenaren bidez, Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak gatazka artxibatzea erabaki zuen (9/2015 espediente-zenbakia) xedea gerora galtzeagatik, ZAEAk amore eman baitzion BFAk ASGSL

SERVICIOS Y GESTIONES SLren egoitza-aldaketaz egindako proposamenari; horren ondoreak atzeraeraginez hasi ziren 2009ko apirilaren 27tik aurrera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluak Arbitraje Batzordearen eginkizun hauek ezartzen ditu:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea».

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

Gatazkan, ASGSL zergapeko zehatz baten gaineko ikuskapen-eskumenaren erabilera dago eztabaidagai, eta, beraz, haren ebazpena, transkribatutako a) eta b) letretan esleitutako eginkizunetan sartzen da.

2.- BFaren jarrera.

BFaren iritziz, 66.Hiru artikuluari jarraikiz, «Eskumen-gatazka dagoenean, harik eta ebazten den arte, kasuan kasuko zergadunak kargatzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Horrelakoak Arbitraje Batzordearen erabakiaren arabera tributu-foru berria erabili behar den egunera atzera eraginez eramango dira». Ildo beretik jotzen du abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak – Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Erregelamendua onestekoak– onetsitako Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 15.2 artikulua, Haren arabera: «Harik eta eskumen-gatazka ebazten ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu-arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Administrazio horien jarduketak, bestalde, Arbitraje Batzordearen arabera, administrazio eskudun berriak jatorria duen datara atzeratu beharko ditu bere jarduerak, ondorioetarako».

Ondorioz, BFaren iritziz, zerga-administrazio horrek zergapetu du ASGSL 2010etik 2012ra bitarteko sozietateen gaineko zergari dagokionez, eta horregatik, BFari dagokio ASGSLren gaineko ikuskapen-eskumena gauzatzea, Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak BFAk planteatutako gatazkan zer ebazten duen. Gatazka hori 9/2015 espediente-zenbakiarekin izapidetzen da haren aurrean, ASGSLren zerga-egoitza Bilbotik Madrilerara aldatzea dela aztergai.

3.- ZAEAk jarduketak artxibatzeko egindako eskaera

ZAEAk jarduketak artxibatzeko eskaera egin du, 9/2015 espedientean aurkeztutako amore ematean oinarrituta. Horrenbestez, onartzen du ASGSLren egoitza 2009ko apirilaren 27tik Madrilen dagoela; hori horrela, Arbitraje Batzordeak amore ematea onartzen duenean eta, ondorioz, ASGSLren egoitza Madrilen dagoela ebatzi, ondoriorik gabe geldituko da gatazka, ZAEA izango baita zergapekoa egiaztatzeko eta ikertzeko jarduketak egiteko eskumena duen administrazioa.

4.- Arbitraje Batzordearen jarrera.

Ratione temporis indarrean dagoen Ekonomia Itunaren 19. artikularen arabera:

«Bat. Subjektu pasiboak Euskadin badu egoitza fiskala, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak egingo du zergaren ikuskapena.

Hala ere, subjektu pasiboak aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 7 milioi eurotik gorakoa bada eta eragiketa guztien % 75 edo gehiago lurralde erkidean egina bada, subjektu pasiboa ikuskatzeko eskumena Estatuko Administrazioarena izango da.

Halaber, egoitza fiskala lurralde erkidean duten subjektu pasiboen ikuskapena dela-eta eskuduna den foru-aldundiak egingo du baldin eta subjektu pasiboak aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 7 milioi eurotik gorakoa izan bada eta ekitaldi horretan eragiketa guztiak euskal lurraldean egin badira».

Alderdiak bat datoz ikuskatzeko eskumenaren lotura-puntu erabakigarria zergapekoaren zerga-egoitza dela, eta administrazio-espedientean ez dago

eragiketa-zenbatekoari buruzko informaziorik, horregatik, Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 66.Hiru eta 15.2 artikulua aplikatu behar ziren, 9/2015 espediente-zenbakiko gatazka erabaki bitartean, BFAk berak planteamenduan eskatu bezala. Nolanahi ere, BFAk proposatutako egoitza-aldaketa onetsi du gatazkaren ebazpenak, ZAEAk amore eman duelako; hori dela eta, bi administrazioen arteko gatazka bertan behera gelditu da, eta gerora galdu da Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratutako prozeduraren xedea, eta, ondorioz, artxibatzea ekarri du horrek.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Gatazka artxibatzea prozeduraren xedea gerora desagertu delako, ZAEAk amore eman baitio BFAk SSLren egoitza aldatzeko egindako proposamenari, haren ondorioak 2009ko apirilaren 27tik aurrera hasita (9/2015 espediente-zenbakiko gatazka).

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta ASGSLri jakinaraztea.